



# EKI ESTRATEGIA

## Eskola Kirol Inklusiboaren Estrategia

### Zer da EKI?

Ikastetxe edo/eta kirol klubek garatu dezaketen inklusio estrategia bat da.

### Zertarako da EKI?

Eskola adineko kirolean desgaitasuna edota funtzio-aniztasuna duen eskola ume baten kirol eta jarduera fisiko testuinguruan eragin eta bertan inklusioa sustatzeko.

Inklusio esku-hartze batean, testuingurua eta parte-hartzaile guztiak elkar egokitzen dira denek parte hartze aukera bera izan dezaten. Bizitzeko filosofia bat da, non denok edozein arlo edo eremutan elkarrekin arituko garen.

Batzuetan eskola kirolean inklusioa emateko, alegia, EKI estrategia garatzeko, beste monitore baten laguntza behar izan daiteke, eta beste batzuetan ez.

### Eta orduan zer da EKE (Eskola Kirol Egokitua)?

Arrazoi desberdinak direla eta, batzuetan zenbait ikasleren gutxieneko kirol praktika inklusiboa ezin ohi da sustatu. Arrazoiak desberdinak dira. Orokorrean, ohiko kirol eskaintza egiturak ez daude oraindik prest (monitore gutxi, ezezagutza, eduki batzuk ikasleen gaintik lehenestea, baliabide material edo ekonomikoa gehigarri ezin erantzun,...). Beste batzuetan, ikaslearen ezaugarriek berek beste jarduera-fisiko edo kirol bat eskatzen digutelako.

EKE taldeak egoera horiei erantzuna emateko eta eskaintza orokorretatik at antolatzen diren taldeak dira.

EKEa garatzeko modurik inklusiboena litzake eskola kiroleko egiturak berak eskaini eta garatutako eskaintza bat izatea. Hots, EKEa Eskola Kiroleko eskaintzaren barne egongo litzake. Horrek EKE taldeak eskola kiroleko gainontzeko taldeekin elkar aritzeko aukerak areagotu ditzake.

EKE taldeak beren eskola kiroleko egiturapean eskaintzeko aukerarik ez duten kasuetan, EKE taldeak tokiko udal entitateekin garatu ohi dira. Eta azken horiekin ezinezkoa denean, Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioarekin.

Eskola-umearen ezaugarrien arabera, EKEak talde egonkorak izan daitezke; eta beste batzuentzat, EKI batera jauzi egiteko beharrezko ahalduzko motorrerako aukera.

### Nola egin daiteke EKI esku-hartze bat?

EKI bat egiteko hiru baliabide dituzu. Hiruak aldi berean erabil ditzakezu, edo bakoitza bere aldetik:

#### AHOLKULARITZA ZERBITZUA.

Gipuzkoako Foru Aldundiko doako zerbitzu bat da.

Parte hartu nahi duzun ikastetxeko edo klubeko ordezkari bat Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioarekin ipintzen da harremanetan. Telefonoz edo emailaz. Bertan, egoeraren berri eman eta ahal den neurrian hainbat aholku eta gomendio emango dizkizute.

[info@gkef-fgda.org](mailto:info@gkef-fgda.org)



943 462 514

Webgunea



Hemen ikasturteko honetako EKE eskaintza.





**Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioko teknikari bat inklusio prozesua martxan jarri nahi duen ikastetxe edo kirol entitate gerturatuko da. Entitate barruko eragileekin hitz egingo du: Ikastetxeetan (zuzendari, tutore edo Pedagogia Teraupetiko arduradunarekin) eta klubetan (koordinatzaile eta entrenatzailearekin). Maiz, eskola umearen familiarekin ere hitz egingo dute.**

**Elkarrizketa guzti horien asmoak dira: umearen premia eta gaitasunak ezagutzea. Berriazko kirol testuingurua behatu eta inklusiorako egon daitezkeen aukerak baloratu, ahal den neurrian, hainbat aholku eta gomendio ematea.**

Aholku eta gomendioak federazioak emanak badira ere, erakundeak berak egin behar ditu bere beharrezko diren erabakiak hartu eta beharrezko diren baliabideak ezartzea. Daukagun inklusio ereduaren baitan, lehen helburua tokiko kirol erakundeek berek zerbitzu horiek garatzea da, ezinbestekoak diren kasuetan tokian tokiko baliabideak lantzea bilatzen du. Hori bera baita inklusioaren beraren izate arrazoia, **aniztasunaren onarpenak guztion inplikazio eta bilakaera eskatzen digu.**

## EKI GIDA.

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak elkarrekin, desgaitasunaren kirol arretarako gida berezi bat atera dugu. Gida desgaitasunaren begirada berri batekin egin dugu: Kirol monitore eta entrenatzailearena.

Desgaitasun bakoitzak beharrezko dituen eta kirol irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan aintzat hartu behar dituen ohiko gomendioak jaso eta garatzen ditu. Desgaitasunak 4 multzotan bildu eta estekatu ditugu: Fisikoa, entzumenekoa, ikusmenekoa eta neurogarapenaren nahasmendua (garapen intelektualaren desgaitasuna, autismo espektroa eta garapen mentaleko desgaitasuna).

**HEMEN duzu EKI Gida**



## DIRU LAGUNTZA ILDOAK.

Bi diru laguntza ildo hartzaileen arabera:

### C4b

Ikastetxe eta klubentzako, eta irabazi asmorik gabeko elkarteentzako.



### A3a

Udaletxeentzako edo toki erakundeentzako.



Aldundiak kirol inklusio esku-hartzeak egiten dituzten entitateentzako berriazko diru laguntza ildoak dituzte; bereziki, eta batez ere, taldeetan bigarren monitore/entrenatzaile baten parte hartzea beharrezko egiten den koste gehigarrian laguntzeko. Lehenetsuna inklusio ekintzak izan arren, kirol egokituko irakaskuntza eskaintza egokituak ere dirulaguntzak jaso ditzake.

Diru laguntzen xehetasunak urtero argitaratzen diren oinarrietan jasota daude eta edozein zalantza osatu eta argitzeko, hoberena kirol zerbitzuarekin berarekin harremanetan jartzea da eraginkorra.

**kirolak@gipuzkoa.eus**



943 11 24 97

### Webgunea



Ez ahaztu, kontrol estatistikorako ezinbestekoa zaigula eskola-kiroleko aplikazioan EKI laukitxoari sakatzea.

## Azken ohar garrantzitsua.

Inklusioak denok aberasten gaitu, integratzen den ikaslea bera eta bereziki testuingurua osatzen duten taldekide eta monitoreak.

Balia itzazu eskura jartzen dizkizugun aukera guztiak!